



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxa: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

## **Erizaintzako laguntzaileen lan-poltsa eratzeko oposizio-lehiaketarako oinarri arautzaileak, Basauriko Udalaren Etxe Maitia adinekoen Egoitza erakunde autonomoan aldi baterako beharriaz aurre egiteko.**

### **Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.**

Deialdi honen xedea da erizaintzako laguntzaileen lan-poltsa eratzea, Etxe Maitia adinekoen udal egoitzan aldi baterako beharriaz aurre egiteko —erakunde autonomoa da Etxe Maitia, eta Basauriko Udalaren mende dago—.

Lan-poltsa horren bidez kontratatuko dira erizaintzako laguntzaileak, kategoria horretako lanpostuak jabetzan hartzeko hautatze-prozesua egiten den bitartean. Hartara, lan-poltsako erizain laguntzaileek titularrak ordezkatu dituzte, horiek baimenak, lizentziak edota oporrak dituztenean; aldi baterako ezintasunagatik bajaran daudenean; lanaldi murriztua dutenean; erretiro partziala hartzen dutenean; edota antzeko egoerengatik lanean ez daudenean. Lan-poltsako erizain laguntzaileengana joko da, era berean, lan-pilaketei erantzuteko.

Aipatutako kategoriarako jada eratuta dagoen lan-poltsa ordeztuko du deitutako hautapen-prozesuaren ostean sortzen denak. Era berean, lan-poltsa zaharra ordezeko gisa mantenduko da, berria agortzen bada.

Hautapen-prozesuan parte hartu ahal izateko, izena eman beharko da Basauriko Udaleko Erregistro Orokorrean —Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ)—, epea ireki eta gero. Hautaketa, bestalde, oposizio-lehiaketa sistemaren bidez egingo da.

Erizaintzako laguntzaile lanpostua erakundearen lanpostu-zerrendan dago. C2 Taldekoa da, eta 17. ordainsari-maila du. 2. hizkuntza-eskakizuna du, nahitaezkoa ez dena, plazetako batean izan ezik (non nahitaezkoa baita, eta 2003/12/31ko derrigortasun-data baitu).

Unean-unean eginbeharren katalogoan eta lanpostuaren monografian jasotakoak izango dira lanpostuaren eginbeharrak. Edozelan ere, erizain laguntzaileek arreta integrala emango diete egoitzako erabiltzaileei (alor fisikoa, psikikoa eta soziala aintzat hartuta; erakundeko jardunbide egokiaren prozedura, protokolo eta eskuliburuan jasotakoaren arabera; eta egoitzako mediku eta erizain taldearen gidaritza pean).



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxa: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

### **Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.**

Deialdian onartuak izateko eta, hala badagokio, hautatze-prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

- a) Espainiar nazionalitatea izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 57. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
- b) 16 urte beteta izatea, eta, kasua denean, nahitaezko erretirorako gehienezko adina ez gainditzea.
- c) Lanpostuaren berezko eginkizunak behar bezala betetzea eragotziko lukeen gaixotasun nahiz traba psikiko edo fisikorik ez izatea.
- d) Eginkizun publikoak betetzeko gaitasungabetuta ez egotea, eta edozein herri-administrazioko zerbitzutatik diziplina-espediente bidez bereizita ez egotea.
- e) Lanbide-heziketako erizaintzako zaintza osagarrien teknikari titulua, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko teknikari titulua, gizarte-erakundeetan dauden mendekoei arreta soziosanitarioa emateko lanbide-gaitasun ziurtagiria edota horien parekoak edukitzea.

Oinarri honetan zehaztutako baldintzak, eskabideak aurkezteko epearen amaieran bete beharko dira, eta indarrean egon beharko dira izangaia lanposturako deitu, eta hura kontratatzeko unean.

Hautatze-prozesuan onartuak izateko eta bertan parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek beren eskabideetan adieraztea bete egiten dituztela eskatutako baldintzak —aurrerago, hori egiaztatu beharko dute—.

### **Hirugarrena.- Izangaiek onartzea.**

Hautapen-prozesuan parte hartu nahi dutenek, Herritarrentzako Arreta Zerbitzura (HAZ) jo beharko dute (Basauriko udaletxean dago —Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri—). Bertan, eskabide normalizatu bidez eskatuko dute Etxe Maitia udal egoitzan erizain laguntzaileen kategoriako lan-poltsa eratzeko hautapen-prozesuan onartuak izateko. Interesdunek 20 egun naturaleko epea izango dute aipatutako eskabidea aurkezteko, oinarri hauei buruzko iragarkia erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)) argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

Halaber, eskabideak aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan xedatutako moduan.



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxa: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

Izangaiek, eskabidean, adierazi beharko dute deialdiaren bigarren oinarrian jasotako ezaugarri guzti-guztiak betetzen dituztela (eskabideak aurkezteko epearen amaieradata oinarri hartuta, betiere).

Esandakoaz gain, honako hauek jaso beharko dituzte:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.
- b) Oposizio faseko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- c) Desgaitasunak dituztenek beren egoeraren berri eman beharko dute eskabidean, eta, hala badagokio, adierazi beharko dute hautaprobak egiteko zein arrazoizko denbora eta baliabide-egokitzapen eta -doikuntza behar dituzten.
- d) Alegatutako merezimenduen zerrenda.

Alegatutako merezimenduen egiaztagiria bakar-bakarrik aurkeztuko dira seigarren oinarrian adierazi bezalaxe, alegia, oposizio fasea amaitu eta gero.

Jatorrizko dokumentuak eskatuko dira lanean hasteko deia egiten denean, hau da, dagokion izendapena edota dagokion lan-kontratua formalizatzerakoan. Une horretan ez badira jatorrizko dokumentuak aurkezten, konpultsa egiteko, izangaiek ez du eskubiderik izango izendatua izateko.

Dagokion ziurtagiriaren bidez % 33ko edo hortik gorako ezintasuna dutela egiaztatzen duten izangaiek aukera izango dute eskatzeko ariketak egiteko denbora eta bitartekoak moldatzea, hala behar izanez gero. Xede horretarako, minusbaliotasunaren ehunekoa eta ezaugarriak adierazi beharko dituzte.

Eskabideetan adierazitako datuetara lotuta geratuko dira izangaiek. Datuok aldatzeko, idatzi arrazoitua egin beharko dute, eskabideak aurkezteko arestian aipatutako epearen barruan. Epe hori igarota, ez da halako eskaerarik onartuko.

Erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean jarriko da hautatze-prozesuari eta horri lotutako egintzei buruzko informazioa. Jakinarazpen eta komunikazio ofizialen balioa izango du horrek.

### **Laugarrena.- Deialdia.**

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko du Basauriko Etxe Maitia adinekoen udal egoitzako lehendakariak, eta hura argitaratuko du erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)).



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxa: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

Kanpo utzitako izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute, zerrenda iragarki-taulan argitaratu osteko biharamunetik aurrera, bazter uztea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, onartuen behin-behineko zerrenda behin betikoa bihurtuko da, automatikoki. Erreklamaziorik aurkezten bada, horiek onetsiak ala ezetsiak izango dira ebazpen berri baten bidez, bost eguneko epearen barruan.

Bigarren ebazpen horretan, Epaimahai Kalifikatzailearen osaeraren berri ere emango da, eta adieraziko da oposizio faseko proba zein datatan egingo den.

Lehenago aipatutakoa gorabehera, bigarren ebazpen horren ostean, Epaimahaiak, edozein unetan —baita probak egiten ari direnean ere—, edozein izangai hautaprobetatik baztertzeko proposamena egin ahalko dio Lehendakaritzari, hautamaten badu eskabideak edo horri erantsitako dokumentazioak zehaztasunik eza edo faltsukeria dakarrela, eta hori izangaia baztertzeko arrazoia dela. Hala egingo da, hain zuzen ere, akats hori konponezintzat joko delako, beti.

### **Bosgarrena.- Epaimahai Kalifikatzailea.**

Epaimahai Kalifikatzailearen osaerak bat egingo du Enplegatu Publikoaren Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesteko urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua xedatutakoarekin. Horrenbestez, epaimahaiburu bat, idazkari bat eta hiru epaimahaikide izango ditu. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Era berean, espezialitate printzipioa betetzea zainduko da: kideen erdiek, gutxienez, lan-poltsan sartzeko eskatutako titulazioaren jabe izan beharko dute, eta kide guztiek eduki beharko dute deialdian finkatutako ikasketa-maila berdina ala goragokoa. Halaxe xedatzen du Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, bere 31.2 artikuluan.

Lehendakariaren ebazpen bidez zehaztuko da Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena ere, eta, horrekin batera, epaimahaia zein tokitan, datatan eta ordutan eratuko den. Horri buruzko informazioa argitaratuko da erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean, onartuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenarekin batera.

Epaimahaiak aholkulari espezialistak ekarri ahal izango ditu, hautaketa-prozesuko probetan laguntzeko. Hala egiteko aukera aurreikusten du Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, 31.3 artikuluan. Epaimahaiak eskumena izango du hautapen-prozesuan zehar sor daitezkeen zalantzei buruz erabakitzeko.



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxe: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

Epaimahaia ezingo da eratu berau osatzen duten kideen erdiak baino gehiago ez badaude. Gainera, lehendakariak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez. Erabakiak boto-kopuruaren gehiengoz hartuko dira. Berdinketa badago, epaimahaiburuaren botoak erabakiko du.

Epaimahai Kalifikatzailean parte hartzearen truke, legez aurreikusitako kalte-ordainak jasoko dituzte bai epaimahaikideek, bai haien aholkulari gisa dihardutenek. Hala aurreikusten du zerbitzuagatiko kalte-ordainak jasotzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren 22. artikulua.

Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua jasotako egoeraren bat ematen bada, Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezingo dute parte hartu, eta erakundeko lehendakariari horren berri eman beharko diote. Beste alde batetik, hautagaiek Epaimahaiko kideak errekusatu ahalko dituzte, aipatutako Legearen 24. artikuluari jarraituta, baldin eta aurreko artikuluan jasotako arazoiren bat ematen bada.

## **Seigarrena.- Hautapen-prozesua.**

Izangaiak oposizio-lehiaketa sistemaren bidez hautatuko dira.

### **Oposizio aldia**

Probetarako deialdi bakarra egingo da. Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin, gidabaimenarekin edota Epaimahaiak baliozkotzat jotako beste identifikazio agiri batekin agertu beharko dute izangaiak bertara. Oposizio alditik kanpo geratuko dira Epaimahaiak finkatutako datan agertzen ez direnak, edota beren burua egokiro identifikatzen ez dutenak.

### **Proba nahitaezkoa eta baztertzaila:**

Epaimahaiak ezarritako gehienezko denboran, oinarri hauei dagokien gai-zerrendaren zati komuneko eta zehatzeko (I. eta II Eranskinak) edukiei buruzko erantzun anitzeko galderetegiari idatziz erantzutea. Galdera bakoitzeko 4 erantzun egongo dira, eta txarto erantzundako galderek puntuak kenduko dituzte.



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxa: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

Puntuazio zuzena honako formula honekin lortuko da: ondo erantzundakoak ken txarto erantzundakoen herena ( $P = O - T/3$ ). Erantzun gabe utzitakoak ez dira kontuan hartuko.

Ariketaren amaierako puntuazioa 0-20 bitartekoa izango da. Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du zein izango den proba gainditzeko gutxienez lortu beharreko puntuazioa, izangaien nortasuna ezagutu aurretik eta aurkeztu direnen ezagutza-maila aintzat hartuta.

Oposizio aldiaren (zeina baztertzaila izango baita) 20 puntu lortu ahalko dira, gehienez ere.

### **Lehiaketa aldia**

Oposizio aldia amaitu eta gero hasiko da.

Lehiaketa aldia bakar-bakarrik egingo dute oposizio aldia gainditu duten izangaiek.

Hamar (10) egun baliouduneko epea igaroko da oposizio alditik lehiaketara aldira. Epe hori zenbatzen hasiko da Epaimahaiak oposizio aldia gainditu duten izangaien, eta haiek lortutako puntuen zerrenda erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean argitaratzen duen dataren biharamunean.

Xede horietarako, oposizio aldia gainditu duten izangaien zerrendarekin batera argitaratuko da noiz amaitzen den epea eskabidean zerrendatutako merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko. Lehiaketa aldiaren balorazioa egiterakoan, bakar-bakarrik hartuko da kontuan epe barruan, dagokion modu eta tokian aurkeztutako dokumentazioa (datorren paragrafoan zehazten da).

Horrela, bada, dokumentazioa Basauriko Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) aurkeztu beharko da (Kareaga Goikoa 52, Basauri 48970), edota, bestela, 39/2015 Legearen 16. artikulua aurreikusitako tokietan.

Baldintza eta betebeharrak berdinekin aurkeztu ahalko dute dokumentazioa, kautelazko neurri gisa, oposizio aldia gainditu ez arren, errekurtsioa aurkeztu duten izangaiek (errekurtsioaren ondorioz hasierako fasea gainditzeko bada).

Interesdunek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Administrazio publikoan antzeko zereginak dituzten postuetan lan egin izandako denboraren egiaztagiriaren fotokopia. Postuaren kategoria, eta, hala badagokio, espezialitatea, izendapen-mota eta lan egin izandako



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxa: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

- aldiak jasoko dira egiaztagirian, merezimendu gisa konputatuak izan daitezten, lehiaketa aldiko balorazioaren 1. puntuari xedatutako moduan.
- b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitzaren egiaztagiriaren fotokopia, eta antzeko zereginak zituzten lanpostuen lan-kontratuenak, merezimendu gisa konputatuak izan daitezten, lehiaketa aldiko balorazioaren 1. puntuari xedatutako moduan.
  - c) Hizkuntza Eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia, merezimendu gisa konputatua izan dadin, lehiaketa aldiko balorazioaren 2. puntuari xedatutako moduan.

Ez dira baloratuko eskabidean jaso ez, edota aldi honetan egiaztatzen ez diren merezimenduak, ez eta baloratuak izateko baldintzak betetzen ez dituztenak.

Alegatutako merezimenduak akastunak badira, interesdunei errekerimendua egingo zaie erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean, hamar (10) egun baliouduneko epean merezimenduen egiaztagiritako akatsak konpon ditzaten. Halaber, adieraziko zaie akatsak konpondu ezean, dagozkion merezimenduak ez direla baloratuko.

### **Lehiaketa aldia baloratzea.**

#### **1.- Lan-eskarmentua. Gehienez ere, 8 puntu.**

- Administrazio Publikoan antzeko eginbeharrak zituzten lanpostuetan aritu izanagatik: 0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, 8 puntuko mugarekin.
- Adinekoen egoitzetan antzeko zereginak zituzten lanpostuetan aritu izanagatik: 0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, 8 puntuko mugarekin.

Administrazioan aritu izana egiaztatzeko, dagozkion erakundeak lan egin izandako denboraren egiaztagiria aurkeztuko da. Bertan, kategoria, espezialitatea (hala badagokio), izendapen-mota eta lan egin izandako aldiak jasoko dira.

Eremu pribatuan edo itunduan lan egin izandako denbora egiaztatzeko, berriz, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako lan-bizitza eta kontratuen kopiak aurkeztu beharko dira.

#### **2.- Euskaraz jakitea. Gehienez ere, 2 puntu.**

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeari dagokionez, izangaiek egiaztatu beharko dute dagozkion hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria edo horren baliokide den titulua badutela. Titulu baliokideak jasotzen dituzte euskararen ezagutza egiaztatzeko titulu



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxa: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzen dituen azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikulua; eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak. Aipatutako egiaztatzea aurkeztu beharko da hautatze-prozesuan parte hartzeko eskabidearekin batera.

Hizkuntza-eskakizuna ez da derrigorrezkoa izango, halakorik finkatuta daukaten, edota nahitaezko beste baldintza bat ezarria duten plazetan izan ezik. Hartara, plaza horiek bakar-bakarrik bete ahalko dituzte finkatutako hizkuntza-eskakizuna, edota ezarritako baldintza espezifikoak betetzen dutenek.

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizun bakoitzeko 1 puntu emango da, 2 puntuko mugarekin.

- 1) Administrazioaren 1. Hizkuntza Eskakizuna: 1 puntu.
- 2) Administrazioaren 2. Hizkuntza Eskakizuna: 2 puntu.

Lehiaketa fasean (ez baztertzailerak) 10 puntu lortu ahalko dira, gehienez ere.

### **Zazpigarrena.- Lan-poltsa osatuko dutenen sailkapena eta zerrendatzea.**

Lehiaketa aldiko balorazioa amaitu eta gero, hautapen-prozesua gainditu duten izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du Epaimahaiak erakunde autonomoaren iragarki-taulan eta Basauriko Udalaren webgunean, oposizio eta lehiaketa aldietan lortutako puntuazioa adierazita. Izangai horiek osatuko dute lan-poltsa.

Oposizio eta lehiaketa aldietan lortutako puntu guztien kopuruak zehaztuko du prozesuan lortutako hurrenkera.

Berdinketa badago, lehentasuna izango du oposizio aldiaren puntu gehien lortu dituen izangaiak. Oraindik ere berdinketak jarraitzen badu, lehentasuna izango du lehiaketa aldiaren lan-eskarmenaren balorazioan puntu gehien lortu dituen izangaiak. Oraindik ere berdinketak jarraitzen badu, lehentasuna izango du lehiaketa fasean euskararen ezagutzaren balorazioan puntu gehien lortu dituen izangaiak.

Izangaiek 10 egun naturaleko epea izango dute kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Epe hori zenbatzen hasiko da behin-behineko zerrenda argitaratzen denean.

Epaimahaiak, aurkeztutako erreklamazioei erantzun eta gero, lan-poltsa osatzen dutenen behin betiko zerrenda (lortutako puntuen arabera hurrenkerekin)





Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxe: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

helaraziko dio erakunde autonomoko lehendakariari, onetsi dezan eta erakunde autonomoko iragarki-taulan eta Basauriko Udaleko webgunean argitaratu dezan.

### **Zortzigarrena.- Lana eskaintzea.**

Lana eskaintzeko, erizain laguntzaileen lan-poltsa eratzen duten izangaien puntuen hurrenkerari jarraituko zaio zorrozki, eta aintzat hartuko dira, era berean, erakundearen aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko irizpideak.

Hautatutako izangaiak lan egiteko deituak izaten direnean, erakunde autonomoak eskatu ahalko die egiaztatzeko aurkeztutako baldintzak betetzen dituztela.

### **Bederatzigarrena.- - Datu pertsonalen babesa.**

Hautaketa-prozesuan parte hartu duten izangaien datu pertsonalak, hain zuzen ere, inprimaki eta eredu bitartez lortutakoak, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko indarreko araudiak aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira (2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; datuen babesari buruzko araudi orokorra; eta datuen babesaren alorreko indarreko gainerako araudia).

Horrela, bada, emandako datuak izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatu batean sartuko dira («EXPEDIENTES PERSONAL» izenekoa), zeina behar bezala inskribatuko baita Datuen Babeserako Agentzian. Basauriko Udala eta Etxe Maitia adinekoen udal egoitza izango dira datu horien tratamenduaren arduradunak eta datuon jasotzaileak.

Izangaiek emandako baimena da izaera pertsonaleko datuak tratatzeko legitimazioa ematen duena.

Izaera pertsonaleko datuen titularrei jakinaraziko zaie datuok eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko, datuon aurka egiteko, horiek eramateko edota datuon tratamendua mugatzeko eskubidea izango dutela, une oro. Eskubide horiek egikaritzeko, mezu elektronikoa bidali beharko diote segurtasun arduradunari, lopd@basauri.eus helbidera, honako hauek adierazita: interesdunaren izen-abizenak; eskatutakoa; jakinarazpenetarako helbidea; data; sinadura; eta NANaren, AIZ edota pasaportearen fotokopia.



Nagusia, 4  
48970 BASAURI  
Tel.: 94 466 64 10  
Faxe: 94 466 64 09  
e-posta: rcia\_mayores@basauri.eus

Izangaiek emandako datu guztiak informatikoki jasoko dira, eta bakar-bakarrik erabiliko dira horiek emanak izan ziren xederako, hautaketa-prozesuan zehar eta bertatik eraturako lan-poltsa indarrean den bitartean.

Datuen babesari buruzko informazio osagarri eta xehatua, hemen: <http://www.basauri.eus>.

Basaurin, 2018ko urriaren 3(e)an.

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria  
Asier Iragarri Basaguren jn.